



FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure proiektua aurrera eramateko ezinbestekoa dugu beste elkarteekin bat egitea.

Guretzat garrantzitsua da beste enpresa batekin elkartzea, izan ere, bi enpresen indarguneak batuz bata bestearen ahulguneak estalita geratuko dira. Era honetan, gure enpresak behar dituen ezaugarriak dituen beste enpresaren bat bilatzen saiatuko gara bi enpresen onura bilatzeko.

Gure enpresan kudeaketa egokia egiten badugu enpresa denboraren poderioz hazi egingo da eta honek ezagutzera eramango gaitu. Guk antolaketa egokia badugu, beste enprekin elkartzea errazagoa izango da beraiek guran konfiantza handiagoa edukiko dutelako, hau da, gure kudeaketa onak enpresa haztea eramango duela eta horrela etekin gehiago lortuko ditugu. Beste enprekin elkartzean, bi enpresen negozioa ona baldin bada eta kudeaketa ona badute biak batera asko haziko dira eta bien negozio eredia optimizatzea eta hobetzea lortuko dugu. Negozio eredia optimizatuz, bezero gehiagorengana iristea lortuko dugu eta horrek gure proiektua hobetzea ahalbidetuko digu.

Horrez gain, beste enpresaren batekin elkartzerakoan baliabide gehiago eskuratuko ditugu eta bezeroei kalitate hobetua eskaini ahal izango diegu, hori baita gure enpresaren helburu nagusienetako bat.

Ezinbestekoa da enpresa bat sortzean bazkide eta hornitzaileak edukitzea enpresa geroz eta ezagunagoa egiteko. Hortaz, sare sozialak eramateko enpresa batekin kontaktuko dugu. Beraien eskutan utzi nahi dugu gure enpresaren zabalkuntza, beraiek eraman dezaten gure enpresaren webgune orria eta sare sozialak. Gure helburua honen bitartez gure enpresa ezagutzera eramatera da eta ahalik eta jende gehienara iristea. Bertan gurekin harremanetan jartzeko aukera eskeiniko dugu eta gurera etorri nahi duten gazte guztientzat informazio guztia zintzilikatuta egongo da. Gainera, ohikoak diren zalantzak erantzungo ditugu. Guzti honekin harreman estu bat lortu nahi dugu, bezeroek enpresa hurbil senti gaitzaten.



Informazio iturri ezberdinak begiratu ondoren eta hainbat enpresa ezberdin aztertu ondoren, taldekide guztien artean enpresa hau kontratatzea erabaki dugu gure beharretara hoberen moldatzen dena delako. Web orrialdeen diseinuan eta ordenagailuen konponketan adituak direlako.



[Baztanet informatika&web](#)



ikastolenelkartea

Horrez gain, gure bezeroak 16-20 urteko gazteak direnez hauetako asko oraindik ikastoletan egongo dira. Horregatik, gure enpresa ikastola guztietan zabaldu nahi dugunez, gure enpresa hazteko Ikastolen elkartearekin elkartuko ginateke. Beraiekin hitzartuz, ikastola guztiak kudeatzen dituen elkarte handi bat denez, elkarte honen barruan dauden ikastola guztietan zabalduko zuten gure proiektua eta honek ezagutzera eramango zigen. Gainera, Ikastolen Elkarteak ikastoletan hitzaldiak egitera ahalbidetuko ziguten ikasleekin harreman zuzenagoa edukitzeko eta horrela gure bidaietara animatzeko.

<https://ikastola.eus/>

Ez dugu gure lehiakideak diren enpresekin bat egingo. Izan ere, elkarrekiko lehiakideak diren bi enpresek, helburu eta produktu berdinak dituztenez ezingo diote bata besteari ekarpen handirik egin. Beti edukiko dute lehia beraien artean eta horrek proiektua aurrera eramatea oztopatuko du. Oztopatuko duen horretan, bi enpresek etekinak lortu nahiko dituzte eta lehiakideak direnez, ez zaie komeni bata bestearekin elkartzea etekin gutxiago lortuko dituztelako bakoitzak beraien enpresarako. Diru sarrera gutxiago lortuko dituzte, lortutako etekinak bi enpresen artean banatu beharko dituztelako. Guzti hau kontuan hartuz, ikusi dezakegu ez dela errentagarria izango gure enpresantzat.